

KANALA

Gure produktua eta zerbitzua bezeroengana iritsi ahal izateko hainbat kanal erabiliko ditugu.

Lehenik, udaletxeko kortxoan gure zerbitzuaren inguruko informazioa jarriko dugu, herritarrek modu errazean ikusi dezaten. Horretaz gain, sare sozialak ere erabiliko ditugu, Instagram eta Facebook gehienbat, gurasoengana hurbildu ahal izateko eta gure zerbitzuaren berri izateko.

Bigarrenik, ikastetxeetako guraso elkarteekin harreman zuzena izango dugu, eta haien bidez informazioa banatuko dugu. Gainera, gurasoen WhatsApp taldeetara mezu informatiboak bidaliko ditugu, zerbitzua nolakoa den azalduz eta gurekin harremanetan jartzeko datuak eskainiz (telefonoa, helbidea...). Haurrak egon ohi diren espazioetan (parkeak, eskola inguruak, liburutegia, kultur etxea zentro komertzialak, kiroldegia...), posterrak eta kartelak ere jarriko ditugu, guraso eta familientzat informazioa eskuragarria izateko eta gure zerbitzua zabaltzeko.

Gure salmenta-kanal nagusia webgunea izango da, bertan, bezeroek erosketa edo erreserbak modu eroso eta zuzen batean egin ahal izango dituzten. Ondoren, produktuen (jostailuen) eta liburuen banaketak Correosen bidez egingo ditugu, entregak seguruak eta azakarrak izan daitezen.

